

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN
IZATASUNEZKO EZAUGARRIEI BURUZKO
MARTXOAREN 27KO 6/1990 FORU
ARAU.**

AURKIBIDEA

- Sarrerakoa.
- 1. Artikulua.-
- 2. Artikulua.-
- 3. Artikulua.-
- 4. Artikulua.-
- 5. Artikulua.-
- 6. Artikulua.-
- Lehenengo Xedapen Gehigarria.-
- Bigarren Xedapen Gehigarria.-
- Hirugarren Xedapen Gehigarria.-

SARRERAKOA

Gipuzkoako Batzarre Nagusiek 1985eko azaroaren 25ean eraturako bileran, Foru Diputazioak burututako iharduketen ondoren, erabaki bat hartu zuten, horren lehen puntua honako hau delarik:

«Oartzunen 1979ko uztailaren 2an eginiko Batzarre Nagusien bileran edo Ohizkoan hartutako erabakiaren arabera Gipuzkoako ezkutuarien aldaketaren ondoriozko deskribapena honako hau da:

“Alor bakarreko armarrria, urrezko zelaiaren gainean hiru hagin berde dauzkana, bata erdian eta alboetako biak tamaina berdinean eta zuhaitza horien oinetan zilar eta urdinezko ur uhinak eta armarrri hau besarkatuz bi basati apoiaturik albo banatatik eta azpitik esaera hau egonik: FIDELISSIMA BARDULIA NUNQUAM SUPERATA.”»

Bidezkotzat erizten da, hala ere, aipaturako erabakiaren edukia ahalbait maila arauemailerik haundienaz hornitzea, baita hura osatzea ere, Gipuzkoako armarrriaren erabilera zenbait inguruabarretan arautuz.

Gure Lurraldearen izatasunezko ezaugarriez iharduteko alor honez beste maila batetan, egokitzat jotzen da bertako tradiziozko banderari lerrun aruemailea ematea, gutxienezko zehaztasun batzuk adieraziz.

Aldi berean egoki da Lurralde izen ofizialari Euskararen Erabilera Normaltzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. Artikuluan xedatutakoa aplikatzea gauzatzea, alegia, gure Lurralde Historikoaren toponimo ofiziala ezartzea, haren euskal jatorria errespetatuz eta horrekin batera grafia akademikoa ere bai, Euskaltzaindiak erabakitakoaren arabera.

I. TITULUA IZENA

Lehen Artikulua.

Lurralde Historikoaren izen ofiziala «GIPUZKOA» euskal hitza da.

II. TITULUA BANDERA

Bigarren Artikulua.

1. Gipuzkoako bandera tradiziozko kolore txurikoa da, beronen erdialdean Lurralde Historikoaren ezkutua ageri delarik, Foru Arau honetako Bosgarren Artikuluko 1. atalak xedatzen duen eran.

2. Luzeraz zabalera halako hiru erdiko neurriak izango ditu banderak.

Hirugarren Artikulua.

Gipuzkoako bandera indarrean dagoen legerian ikusitako moduan erabiliko da.

III.TITULUA ARMARRIA

Laugarren Artikulua.

1. Gipuzkoako armariaren deskribapena honelakoa da:

«Armarri bakarreko armarrria, urrezko zelaiaren gainean hiru hagin berde dauzkana, bata erdian eta alboetako biak tamaina berdinean eta zuhaitza horien oinetan zilar eta urdinezko ur uhinak eta armarri hau besarkatuz bi basati apoiaturik albo banatatik eta azpitik esaera hau egonik: «FIDELISSIMA BARDULIA NUNQUAM SUPERATA».

2. Gipuzkoako armariaren eredu ofizialtzat Eranskinean irudikaturik azaltzen dena aldarrikatzen da.

Bosgarren Artikulua.

Gipuzkoako banderak hurrengoetan agertu behar du:

1. Gipuzkoako banderan, salburik eta balio historikodun ezaugarriak direnean, izaera horrekin gorde edo erakutsi behar direnak. Salbuespen berdinarekin, armarrria altueraz banderaren zabalera holako bi bosten izango da eta haren bi aldeetan azalduko da.

2. Erregelamenduen arabera Lurralde Historikoaren Foru Erakundeek emandako ohore eta prestutasunak egiaztatzen dituzten titulu, domina eta gauzakietan.

3. Lurralde Historikoaren Agintariak luzatutako era guztietako diploma eta tituluetan.

4. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Foru Erakundeetako beste argitalpen ofizialetan. Eragin horietarako argitalpen ofizialtzat jotzen dira arau eta xedapen orokorrak nahiz haien aplikaziorako jarraibideak eta erakundeen jakinerazpen edo testuak plazaratzea xedetzat dutenak.

5. Erabilpen ofizialeko agiri, inprimaki, zigilu eta idazpuruetan, Foru Arau honetako Hirugarren Xedapen Gehigarriaren kalterik gabe.

6. Lurralde Historikoaren Foru Erakundeetako eraikin publikoetan. Dena den, mantendu egingo dira monumento historiko-artistikotzat aitortutako eraikinetan daudenak edota monumento, etxe edo eraikuntzetakoak baldin eta haien apaingarrietan funtsezko parteak hartzen badute edota armarrriak kentzean haien egiturari kalterik egin badakioke.

7. Lurralde Historikoaren Erakunde ofizialetako eraikin eta lokaletako kanpoko plaketan.

8. Ordezkaritzazkoak izateagatik Lurralde Historikoaren ikurrak azaldu behar direneko erabilera ofizialeko gauzakietan.

Seigarren Artikulua.

Gipuzkoako armarria erakunde publiko nahiz pribatuen aldetik edota produktu edo merkatalgaien ezaugarri gisara erabil ahal izateko Foru Diputazioaren alde aurreko baimena beharko da eta horrek arautuko ditu emakidaren betebeharrak eta baldintzak, baita kasuan kasuko diseinu egokiak onartzeko ahalbidea ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.

Gipuzkoako Batzarre Nagusiek Foru Arau honetan araututako ikurrak erabiltzea beren organo eskudunek erabakitzen duten eran eta, kasua balitz, egokipenekin burutuko da.

Bigarrena.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa irudikatzen duten ikurren xehetasun teknikoak eta ezaugarri materialak erregelamenduki erabakiko dira.

Hirugarrena.

Diputatuen Kontseiluari baimena ematen zaio Foru Dekretu bidez armarria errazki irudikatzeko moduko logotipo bat onar dezan, publizitatean, ofiziala izan ala ez, kartel eta panek informatzaileetan, ibilgailuetan eta Foru Arau honetako Bosgarren artikuluan deskribatuak ez bezalako beste aplikazio batzuetan erabiltzekoa. Logotipo bereziak ere onar daitezke Zerbitzu jakinetarako.

Aldi berean Gipuzkoako armarriaren edo haren logotipoaren erabilera arautuko da aipatutako artikuluko 5. pasarteak aipatzen dituen agiri, inprimaki, zigilu eta idazpuruetan.

Hala eta guztiz ere, logotipoa ez da erabiliko Diputazioaren ondoan bere armarria ofiziala erabiltzen duen beste Erakunde bat agertzen deneko kasuetan.

ERANSKINA

